

Hondakinak batzeko sistema berri bat diseinatzen

Herriko taldeekin batzarrak

Batzar guztiek egitura hau eduki zuten: Mankomunitatearen txostena aurkeztu eta horren inguruko eztabaida

2014-1-09

ELA eta LAB sindikatuko ordezkariekin batzarra

- Bi sindikatuek Atez atekoaren aldeko jarrera agertu zuten, lanpostuak sortzen dituelako, baita ere zero zabor filosofiaren aldekoa, eta errausketaren kontrakoa, ingurumenarentzako kaltegarria delako.
- Dena dela, kontratu berrian langileen subrogazioak errespetatu behar direla azpimarratu zuten. Pliegoetan hori argi agertu behar dela, antzinakotasunak-eta ez galtzeko.
- Zerbitzua etorkizunean publikoa izan beharko litzatekeela azpimarratu zuten, azpi-kontratazioak albo batera lagata

2014-1-18

Herriko Gazte taldeekin batzarra: OGA, IA eta Ernai

- 5. edukiontzia eta atez atekoaren arteko desberdintasunak azaltzeko eskatu zuten batzarrean zeuden gazte batzuk.
- Udalaren erantzuna: Organikoarentzako 5. edukiontzia 24 orduan egoten da, batzuetan etxetik urrutiago, eta ez dute herritar guztiek erabiltzen. Atez atekoarekin egun eta ordu batzuk errespetatu behar dira, baina hondakinak lagatzeko lekua etxetik hurbilago egoten da eta herritar guztiek egin behar dute.

Atez atekoaren inguruan:

- Alde Zaharrea zelan egin daiteke atez atekoa?
- Udalaren erantzuna: beste leku batzuetan lokalak alokatzen dituzte alde zaharrea, potoak bertan lagatzeko.
- Eta jendeak hori errespetatuko du?
- Udalaren erantzuna: lokal bakoitza portal batzuentzako izango da. Zeozeinek txarto egiten badu, errazagoa izango da identifikatzea.
- Estetikoki zelan geratuko da?
- Udalaren erantzuna: orain atez atekoa ipintzen ari diren herrietan potoetan ateratzen da dena, eta beraz itxura dotoreagoa da. Potoen arazoa da, gero bila joan behar dela.
- Gazte batek aipatu zuen estetika bigarren mailako kontua dela, eta garrantzitsuena birziklatzea dela.
- Kaleko zamarpotoekin (papelerak) zer egingo dugu?
- Udalaren erantzuna: papelerak ere bilketa selektibora egokituko ditugu, parkeetan-eta birziklatu ahal izateko. Baina hori atez atekoarekin eta beste edozein sistemarekin egingo dugu. Kontzientzia sortzeko bide on bat da.
- Zenbat lanpostu sortuko dira?
- Udalaren erantzuna: Zaila oraindik jakitea, baina eskualde guztian 3 lanpostu gehiago sor daitezkeela aurreikusten da (herri guztiek atez atekoa aukeratuta lanpostu gehiago sortuko lirateke).
- Jatetxeek organiko asko sortzen dute, eta agian horientzako zer bait berezia pentsatu beharko da.
- Gazte batek adierazi zuen pena daukala eskualde guztian atez atekoa ipiniko ez delako. Erabaki hori denontzako izango litzatekeelako ona.
- Udalaren oharra: atez atekoarekin, beiraren kontenedore berdea kalean geratzen da. Gaur

egun ere beira asko birziklatzen delako.

2014-1-21

Kultur Batzordeko taldeekin batzarra

- Kontzientzia falta handi bat dagoela adierazi zuen pertsona batek: batzuk birziklatzeko ahalegina egiten dutela, eta beste batzuk ezer ez. Batzuetan kontenedorea hutsik egonda ere, jendeak poltsak kanpoan lagatzen ei ditu (adibidez Berdura Plazan).
- Gaur egun birziklatzen ez duenari bere gastuak ordaintzen ari gara birziklatzen dugunok (birziklatzearen dirua irabazten delako, eta zamarrak erretzeko ordaindu egin behar delako).

Atez atekoaren inguruan:

- Atez atekoa probatu arte bisualizatzen zaila dela esan zuen batek.
- Udalaren azalpena: atez atekoa da hondakinak etxeko atetik ahalik eta hurbilen jasotzea, egun batzuk daude, eta egun bakoitzean hondakin bat jaitsi behar da. Hondakin hori poltsetan jaitsi ahal da, edo pototetan. Poste batean zintzilikatu daiteke, edo lurrean laga. Herri batzuetan hondakin batzuk atez ate jasotzen dituzte, eta beste batzuk kontenedoretan. Sistema honekin gehiago birziklatzen da, disziplina gehiago eskatzen duelako.
- Alde Zaharrean zelan egin ahal da atez atekoa?
- Udalaren erantzuna: lokalak alokatu ahal dira.
- Parte hartzaile batek esan zuen bera atez atekoaren alde dagoela gehiago birziklatzen bada, baina bere inguruan kontrako iritziak entzun dituela, hondakinak egunero jaitsi beharko direlako. Baina birziklatzen ez dutenekin zerbait egin beharra ei dago.

2014-1-22

Berdintasun taldeekin batzarra, Etxelilan

- Ahalik eta gehien birziklatu behar dugula esan zuen parte hartzaile batek.
- Beste batek esan zuen ea birziklatzea derrigoritu egin behar dugun.
- Udalaren erantzuna: gaur egun ere derrigorrezkoa da birziklatzea, horrela agintzen du 2007an onartutako Ingurumeneko Udal Ordenantzak. Norbere hondakinekin ganoraz jokatzeko norbere ardura da, inori kalteri egin barik.
- Parte hartzaile batek ere erantzun zion: birziklatzea gure eskubidea eta gure betebeharra da. Orain zamarrak beste herri batera bidaltzen ari gara, errekursoak alperrik galtzen, eta zer utziko diegu hurrengo belaunaldiei? Ez daukagu geure zamarrekin axolagabe izateko eskubiderik.
- Parte hartzaile batek galdetu zuen ea erabakia zeinek hartu behar duen.
- Beste parte hartzaile batek erantzun zion, erabakia udalak hartu behar duela, baina herritarrekin zeozelan adostuta.
- Udalaren erantzuna: 4 hile daramatzagu hondakinen inguruan batzarrak egiten, egun desberdinetan, leku eta ordu desberdinetan. Helburua da jendearen iritziak eta zalantzak jasotzea, Ondarroarako egokia izan daitekeen sistema bat diseinatzeko. Hori bai, helburua beti ahal denik eta gehien birziklatzea izan behar da. Baina horretarako jendeak batzarretan parte hartu behar du, datuak eta alternatibak ikusi, sistema bakoitzaren alde onak eta txarrak ezagutu, eta horren inguruan eztabaidatu.
- Aldaketei erresistentzia beti ei dago, baina gero ohitu egiten gara.
- Udalak momentu horretako egoera azaldu zuen: hondakinak batzeko kontratua amaitzen da 2014an, eta horregatik mankomunitateak ikerketa bat egin zuen, alternatiba desberdinak aztertzeko. Azterketa horretan agertu zen atez atekoa Ondarroarentzako sistemarik merkeena izango litzatekeela, beti ere herri guztiek atez atekoa aukeratuko balute. Beste herriek ez dute atez atekoa aukeratu, orduan udalak eskatu du azterketa sakonagoa egiteko, Ondarroak bakarrik atez atekoa ipinita zelako gastuak edukiko lituzkeen jakiteko. Orain txosten horren zain gaude. Bitartean, beste oztopo batzuk ere badaude. Diputazioak kozinatu gabeko

organikoa jasotzen du bakarrik, bere konpost planta hori bakarrik kudeatzeko prestatuta dagoelako. Guk organiko guztia jaso nahi badugu (sistema bat izan edo bestea) konpost-planta bat behar dugu. Udala eta Mankomunitatea Diputazioarekin harremanetan daude, gai hau aztertzen, Bizkaiko Hiri-Hondakinen Planak esaten duelako konpostaje planta gehiago egingo dituztela eskualdeetan. Ikusiko dugu zelan egin daitekeen, eta zelan finantzatu daitekeen.

- Gaia politizatzea arazo bat izan daitekeela esan zuen parte hartzaile batek, eta horregatik gaia ondo kudeatu behar dela, dialogo askorekin.
- Murritztearen garrantzia aipatu zuen parte hartzaile batek. Adibidez, hilekoarentzako kopa berrerabilgarriak erabiltzea. Baina horretarako emakumeentzako egokitutako komunak egon behar dira toki publikoetan.
- Udalaren erantzuna: Mankomunitateak hiztegi bat banatuko du gauza bakoitza nora bota behar den erakusteko. Interneten badaude aplikazioak mobilera jaisteko, adibidez Gaika app.
- Parte hartzaile batek komentatu zuen kalean entzun duela bateren bat kontratatu beharko litzatekeela banatu gabeko zamarrak banatzeko, birziklatzaile bat.
- Udalaren erantzuna: hori ezinezkoa da, jende asko beharko litzateke zamar guztia banatzeko, eta ekonomikoki oso garestia izango litzateke. Baina hori eginda ere, behin zamarra nahasten denean, gero oso zaila da berreskuratzea (adibidez organikoa kartoiarekin nahasten badugu kartoia ezin da birziklatu, edo organikoa gai kimikoekin nahasten badugu konposta kutsatuta egongo da...)

5.edukiontziaaren inguruan:

- Zenbat birziklatzen da sistema horrekin?
- Udalaren erantzuna: Mankomunitatearen txostenaren arabera, %40-45 inguru, kozinatutakoa be jasotzen badugu. Zarautzen birziklatzen dute gehien sistema honekin, eta %45 ingurura heldu dira sistema honekin.
- Non sartu edukiontzi gehiago?
- Udalaren erantzuna: Gaur egun dauden edukiontzien alboan, eta lekurik ez badago aparkalekuetan edo.

Atez atekoaren inguruan:

- Alde Zaharrean zelan egin daiteke atez atekoa?
- Udalaren erantzuna: lokalak alokatu daitezke.
- Txandaka lan egiten dutenentzako ordutegiak egotea zailtasun bat izan daiteke.
- Udalaren erantzuna: Ordutegi luzeak ipini daitezke. Lezon, adibidez, gau guztian atera daiteke hondakina. Atez atekoa dagoen lekuetan, aportazio lekuak egoten dira. Hau da, giltzarekin itxitako eremu bat, kontenedoreekin. Baten batek urgentzia bat badauka, giltza eskatu ahal du eta bertan bota hondakinak. Trasteak, gaur egun bezala jasoko lirateke, telefono batera deituta.
- Konpresa eta pañalekin zer egin?
- Udalaren erantzuna: egunero jasotzen dira konpresak eta pixa-ohialak.
- Postea zeinek garbitzen ditu?
- Udalaren erantzuna: Udaleko brigadakoek. Errez garbitzen dira.
- Arraina etxean edukitzeak usaina botako du.
- Udalaren erantzuna: herrira arraina sartzen den egunetan jaso daiteke organikoa. Eta kontenedore berezi batzuk ere ipini ahal dira giltzarekin itxita, adibidez udaltzainetan. Baten batek arrain asko badauka etxean hara joan, giltza eskatu, eta bertan bota dezake arraina.
- Konposta egiten duen batek aipatu zuen bera astean bi bidar joaten dela organikoa botatzera, edo asko jota hiru bider. Gehiagorik ez dela behar.
- Jende nagusiak zelan egingo du?
- Udalaren erantzuna: beste herrietan lez, hezitzaileak edo edukadoreak egongo lirateke,

- txarto egiten duenari erakusteko.
- Herriko estetika zaindu behar dela aipatu zuen batek.
 - Udalaren erantzuna: gaur egun atez atekoa ipintzen duten herrietan potoak erabiltzen dituzte batez ere, plastikozko poltsen ordeztu. Estetikoki dotoreagoa geratzen da. hori bai, poltsak ordu batzuetan egoten dira bakarrik (gero langileek jaso egiten dituzte) eta potoak normalean denbora gehiagoan egoten dira (jendeak jaso arte)
 - Beste parte hartzaile batek komentatu zuen gaur egun ere kontenedore askotan poltsak eta zamarrak kanpoan egoten direla, gainez egiten dutelako. Eta hori ez dela estetikoki polita.
 - Etxe baxuetan ez da usainik egongo postea aurrean badaukate?
 - Udalaren erantzuna: potoa ordu gutxitan egongo da postean. Hernanin etxe batzuetan portal barruan lagatzen dute potoa, komodidadeagatik! Dena dela, posteen kokapena aztertu eta aldatu daiteke edozein momentutan. Kontenedoreekin ere hori egiten da, usainak etxeetara ailegatzen badira. Atez atekoa ipintzen bada, portalez portal egingo dira batzarrak, hondakinak non eta zelan jaso erabakitzeke.
 - Gaur egun sortzaile handiek (dendak, tabernak...) kontenedoreak betetzen dituzte, eta gero gainez eginda egoten dira. Interesgarria izango litzateke hauei potoen bidez atez ate jasotzea. Eurentzako ere komodoagoa.
 - Iritzi desberdinak sistemaren inguruan. Bat alde, lanpostuak sortuko dituelako, eta gehiago birziklatuko duelako. Beste batek ez du argi ikusten, ez duela konbentzitzen etxean hondakinak egun bat baino gehiago edukitzeak.

Sistema mixtoen inguruan:

- Parte hartzaile batek aipatu zuen berari etxean plastiko asko batzen zaiola, eta astean bitan jaistea gutxi dela.
- Udalaren erantzuna: herri batzuetan sistema mixtoak ari dira probatzen. Hondakin batzuk atez ate jasotzen dituzte, eta beste hondakin batzuk kontenedoreen bidez. Adibidez, kontenedore horia kalean laga daiteke. Horrek arazo bat dauka: kontenedore horietan edozer agertzen dela (zamarrak), eta birziklatu dutenen lana kaltetzen dela.

Konpostari buruz:

- Parte hartzaile batek galdetu zuen auzokonposta zelan kudeatzen den.
- Udalaren erantzuna: Orain proba-fasean gaude, zelan funtzionatzen duen ikusteko. 20 familia daude parte hartzen, eta euren etxeko hondakin organikoak bertan dagoen material lehorrarekin (hostoak, egur txikitua) nahasten dute. Ingurumen batzordekoak egiten diogu jarraipena, tekniko baten laguntzarekin. Udan hasi ginen, Lekeitiok lagatako egur txikituarekin, baina amaitzen joan zaigu, eta orain podak txikitzen ari gara, urte guztirako egur txikitua edukitzeko. 100 familiatik gora apuntatu dira, eta lortzen dugun egur txikituaren arabera ipiniko ditugu martxan. Hostoak ere bota ahal zaizkio, baina komenigarriagoa da egur txikitua botatzea. Izan ere, egur txikituak hobeto oxigenatzen du konposta, eta horrela ez du usain txarrik botatzen (hostoak zapaldu egiten dira eta ez dute oxigenoa sartzen lagatzen). Etorkizunean funtzionamendua sistematizatu egin nahi dugu, eskualde guztian ipiniko diren auzokonpost guztietan: brigadakoek egur txikitua eroango dute bi astean behin. Eta Mankomunitateak teknikari bat edukiko du auzokonpost guztietara bisita egiteko, astean bi bider. Organikoa kudeatzeko modurik ekologikoena da, hondakinak ez direlako garraiatzen, eta ongarri bihurtzen direlako auzoan bertan. Baina jarraipen bat eskatzen du. Soloetan konposta egiteko 15 poto ere banatu ditugu. Horiek ere martxan daude.

Ongizate batzordeko taldeekin batzarra

- Gero eta zamar gehiago sortzen dugu, komodidadean jausita gaude. Komodidade horrek gainez egin digu.
- Aldaketak beti egon izan dira zamar bilketan: lehen zamarrak astoarekin portalez portal jasotzen zen. Askok erre kara botatzen zuten! Gero kalean lagatzen zen, poltsetan. Eta azkenean kontenedoreak ipini zituzten. Aldaketa guztietan egon dira erresistentziak eta kontrako jarrerak.
- Donostian, Bilbon... Alde Zaharrean gaur egun ere zamar poltsak kalean lagatzen dira.
- Zamarrak erre egiten ditugu, baina horrek arazo bat sortzen du: errautsak zabortegietara eraman behar izaten ditugu. Zer gaude lagatzen hurrengo belaunaldiei?
- Gazteek eskoletan birziklatzen ikasten dute, baina gero zergatik ez dute birziklatzen?
- Trasto zaharrak jasotzeko telefono bat dago, baina jendeak nahi duenean ateratzen du.
- Birziklatzearen udalak dirua jasotzen du. Zamarrak erretzearen, ostera, ordaindu egin behar dugu. Beraz, birziklatzen dutenak birziklatzen ez dutenen gastuak ordaintzen ari dira. Gainera, zamar gutxi sortu edo asko sortu, berdin ordaintzen dugu.
- Pilak jasotzeko lekuak non duden azaltzen propaganda gehiago egin behar da.
- Herri askotan makinak ipini dituzte, eta botilak bueltatzen badituzu dirua bueltan ematen dizute. Baina horretarako estatuak enpresa handiak derrigortu behar ditu horretara.
- Txakur kaken arazoa ere konpondu behar dela esan zuen parte hartzaile batek.
- Udalaren erantzuna: ez da erraza, baina ahalegina egin behar da. Aurreko urtean kanpaina egin genuen, gutunontzietara eskuorri bat bidali eta kartelak ipinita. Datorren urtean zaintzaile bat ipiniko dugu gaba batzuetan, solte eta bakarrik dabilzan txakurrak kontrolatzeko.
- Herri batzuetan lur azpiko edukiontziak daude (Ondarroan ere eduki genituen) baina azkar izorratzen ei dira.

5.edukiontzari buruz:

- Non sartuko ditugu kontenedore gehiago?
- Udalaren erantzuna: espaloietan, aparkalekuetan...

Atez atekoari buruz:

- Organiko normalak ez du usainik botatzen egunetan edukita be, baina arrainak bai.
- Udalaren erantzuna: arraina herrira sartzen den egunetan organikoa jaso daiteke. Arrainarentzako kontenedore bereziak ere ipini daitezke.
- Zenbat poto eduki behar ditugu etxean? Ez dago lekurik!
- Udalaren erantzuna: Gaur egun ere plastikoa eta zamarra banatzeko bi poto edukitzen ditugu (sukaldean, balkoian...). Etorkezunean plastikoa eta organikoa banatzeko bi poto edukiko ditugu, etxeko leku berdinean. Paperak eta periodikoek ez dute usainik botatzen, eta etxeko edozein lekutan eduki daitezke (gaur egun edukitzen ditugun leku berdinean). Errefusa (hau da, birziklatu ezin dena), oso gutxi izaten da (etxeko hautsak, boligraforen bat...), eta erratza, pala eta lanbasa gordetzen den lekuan eduki daiteke, poto txiki-txiki batean. Beraz, etxean poto txiki bat gehiago eduki behar da, usainik botatzen ez duena (errefusa). Beira ateratzeko kontenedore berdea kalean egoten da beti, eta beira edozein egunetan atera ahal da.
- Atez atekoa kuboekin egitea dotore geratzen dela esan zuen pertsona batek, baina ea jendeak errespetatuko duen.
- Beste parte hartzaile batek erantzun zion gaur egun ere boltsak kontenedoretatik kanpora egoten direla sarritan. Hau da, sistema bat edo beste ipini, beti egongo dela txarto egingo duen bateren bat (gaur egun oraindik erre kara botatzen dituen jendea be badago!). Txato egiten duenari isunak ipini behar zaizkiola esan zuen.
- Isunak ipintzeko potoak kodigo bat edukitzea kontrola dela aipatu zuen parte hartzaile batek.

- Udalaren erantzuna: beste gauza askotan ere kontrola egoten da (kotxeen matrikulak, edanda ez gidatzeko kontrolak, zerga ordainketak...). Kontrol hori onartu egiten dugu puntu batera arte, denon onerako bada eta geure eskubide pertsonalak asko kaltetzen ez baditu. Hondakinen kasuan be zergatik ez dugu berdin jokatu? Dena dela, nahi barik txarto egiten duenak ez du isunik jasoko, eta abisatu egin ahalko zaio, hurrengoan ondo egiteko.

Sistema mixtoak:

- Parte hartzaile batek galdetu du zelan kontrolatuko den kalean lagatako kontenedoreetara jendeak edozer ez botatzea.